

Itsaso Saralegi Arcelus

F maila • **Aipamena**

2013an jaio nintzen. Beasaingo naiz eta 8 urte ditut. Kirola oso gustukoa dut, idaztea eta irakurtzea ere asko gustatzen zaizkit. Murumendi da nire eskola 3 urte nituenetik. Lehen idazlana egin dut eskolatik eta oso gustura nago.



IZAR IHESKOR TXIKIAK DIRA TXORITEGIKO ALTXORRAK

Mundu osoan ez da Beasaingo Txoritegin bezalako mendi txoko ederragorik. Txoritegik altxor bat daukala esaten zen herrian eta jendea altxorra bilatzera joaten zen mendira. Guztiak zuloak egin eta zuloak egin ibiltzen ziren, uste zutelako altxorra urrea zela.

-Altxorra niretzat! Aberatsa izango naiz eta etxe dotore bat erosiko dut!!

Izaroren familiak ere ezagutzen zuen herrian esaten zena eta arratsalde batean Txoritegira joatea pentsatu zuten.

- Giro ona dago eta arratsaldean abiatuko gara. Polita izan daiteke Txoritegin gauez ibiltzea. Argia eraman beharko dugu, bestela arriskutsua izan daiteke.

-Bai, bai, bai!-erantzun zuten. Baina zergatik gauez? esan zuen Harkaitzek.

-Agian izarrak ikusiko ditugu, baliteke ezta? erantzun zion aitak.

- Bai! Ederki ibiliko gara!.-esan zion irribarre batekin.

Arratsaldea aurrera zihoanean abiatu zen familia. Aldapa handia zegoen baina halakoa zen zeramaten ilusioa ez zirela nekatzen. Iturri bat aurkitu zuten bidean eta ur pixka bat edan zuten freskatzeko.

Txoritegira heldu zirenean altxorra bilatzen zuten lekura hurbildu ziren, alegia zuloak egiten dituzten lekura. Dena zuloz beteta zegoen eta kontu handiz ibili beharra zegoen. Han ibili ziren beraien linternak piztuta. Zerua zoragarri zegoen, izar mordoa zegoelako egun horretan. Horregatik Izarok pentsatu zuen altxorra hori zela. Txoritegitik ikusten ziren izarrak ziren altxorra seguru. Hori pentsatzen ari zela ahots sendo batek hitz egin zion:

-Oso ondo Izaro! Altxorra aurkitu duzu!!! Horregatik sari bat emango dizut. Ohore handiz, izarren presidentea izendatzen zaitugu. Zure esanetara gaude!

Korrika joan zen aita, ama eta anaiarengana gertatutakoa kontatzea. Harrigarria zen! Zerbait jan eta etxera bueltatzea erabaki zuten. Bidean bizitakoa komentatzen egon ziren eta bueltako bidea ere motza egin zitzaien.

PROSA

Izaroren amak udaletxean lana egiten zuen eta hurrengo egunean, lanean zegoela, bezperan gertatutakoa kontatu zuen. Leire Artola alkatea ere enteratu zen eta amak gonbidatu zuen beraiekin joatea izarrak ikustera. Alkateak gustura onartu zuen gonbita eta mendira igotzeko gelditu ziren.

Leire txundituta eta harrituta gelditu zen:

-Hau da festa!!Oso oso polita da! Bai opari polita! Mila,mila esker!

Baina gero, Leire joan zenean, Izarori izar bat erori zitzaion eskura:

-Buaaa! Buaaa! Ama! Aita! Non zaudete?.- Baina ez ziren azaltzen.

Egunsentia heldu zen eta izarrak negarrez jarraitzen zuen oraindik. Izarok arreta handiz begiratu zion eta oso txikia zen. Gero hau esan zion ahots goxo ederrarekin:

- Zer duzu izartxo? Umea al zara? eta, nola erori zara nire eskuetara?

- Nola erori naizen? Ba egia esan ...zera ... eeeemm...

- Esan lasai! Izarren presidentea naiz eta lagunduko dizut, ez kezkatu!

Izarrak guztia azaldu zion. Bere lagunak haserre zeudela berarekin eta horregatik erori zela bere eskuetara. Izarok dena kontatu zuelako oso oso harro jarri zen izarrarekin. Zerukoarekin hitz egin zuten eta Izarri egin ziotenagatik zigor galanta jarri zien. Izarok izarrari bi gauza esan zizkion: bat, ea lanbiderik zuen eta bigarrena, lasai egoteko, gaua heltzen zenean itzuliko zela etxera. Izarrak baietz esan zion, bazuela lan bat:

-Nire lana oso garrantzitsua da! Izar iheskorren nagusia naiz! Eta badakizu zer asmatu nuen? Abesti polit polit bat, entzun :

"izar distiratsu gauean handik hona gabilta ametsetan ametsetan, itsasoaren beste aldean" .-kantari hasi zitzaion.

Izaro hitzik gabe gelditu zen eta bere barrutik hau pentsatu zuen: "Izarra eta abeslari aparta!".

Azkenean gaua heldu zen eta izarra pilo bat poztu zen.

-Agur izarra!

-Agur Izaro! -agurtu ziren.

Agurtu ostean izarrak diz diz egin zuen. Gauean izarrak argi handi bat egin zuen, Izarok ordea keinu bat.

Izarok jarraitu zuen tarteka Txoritegira joaten izarrak ikustera eta horrelakoetan bere izar lagunarekin egoten zen..

Izar bat eta Izaro. A ze lagun euskaldun pareaaa!!!